



**Basque  
Ecodesign  
Center**

# **Ekonomia zirkularraren hamar gako 2025erako**

**BATZORDE ESTRATEGIKOA  
2024**



INDUSTRIA, TRANSIZIO  
ENERGETIKO ETA  
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y  
SOSTENIBILIDAD



# Ekonomia zirkularraren hamar gako 2025erako

## 1 Karbono-neutraltasuna Euskadin 2045ean (2050ean beranduenez)

Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Euskal Legeak Euskadin klima-neutraltasuna beranduenez 20250ean lortzeko esparru juridiko egonkorra ezartzen du, eta 2045ean lortzeko beharrezkoak diren ahaleginak egin beharko dira. Lege horrek dakartzan tresnen artean, Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Ekimenen Euskal Erregistroa, karbono-aztarna jakinarazteko eta murrizteko betebeharrak hainbat erakunderentzat, eta erosketa publiko berdea egiteko produktuaren karbono-aztarnaren arauzko erabilera aipa daitezke.

## 2 Produktu jasangarrien diseinu ekologikoari buruzko Erregelamenduak eraginpean hartutako produktuen ebaluazioa eta ekodiseinua

Erregelamendu hori 2024an onartu da, eta azken produktuak eta bitarteko produktuak hartzen ditu eraginpean. Arautu diren lehen sektoreetako bat burdinarena eta altzairuarena izan da. Araudi horrek produktuen gutxieneko zirkulartasun-baldintza batzuk finkatuko ditu. Erregelamenduak, gainera, produktuaren pasaporte digitala ezartzen du. Pasaporte hori balio-kate osoan ingurumen-informazioa transferitzeko erabiliko da. Enpresek beren produktuen ingurumen-alderdiak ebaluatu eta hobetu beharko dituzte, era horretan lehiakortasuna lortzeko aukera baliatu ahal izango baitute.

---

### **3 Ingurumen-informazioaren kudeaketa, gardentasun-betekizunei erantzuteko**

Gardentasun-betekizunek (arauzkoek zein merkatuarenek berek) nabarmen egin dute gora azken urteotan, eta, horregatik, funtsezkoa da ingurumen-informazioa kudeatzeko sistema on bat izatea, betekizun horiei erantzutea ahalbidetuko duena. Horren barruan, honako hauek sartzen dira, besteak beste: jasangarritasunaren arloko informazio korporatiboari eta finantza jasangarrietarako taxonomiari buruzko araudia, produktuaren pasaportea, jasangarritasun-indizeetarako txostenak, bezeroei erosketa pribatu berdeko prozesuetarako ingurumen-informazioa ematea edo hornidura-katea ebaluatzeko sistema pribatuak.

---

### **4 Enpresa handiak beren balio-katearen eraldaketa jasangarriaren bermatzaile bihurtzen dira**

Jasangarritasunaren arloko ardura egokiari buruzko 2024/1760 (EB) Zuzentarauak ezartzen duenez, enpresa handiek beren balio-katearen ingurumen-inpaktuak identifikatu, prebenitu eta arindu behar dituzte, eta, horren barruan, 1,5 °C-ko gehieneko tenperatura-igoerarekin bateragarria izango den deskarbonizazio-plan bat garatu, inplementatu eta monitorizatu beharko dute.

---

### **5 Greenwashinga mugatuko da**

Gardentasun-betekizunen gorakadak zuritze ekologikoko prozesuek (*greenwashingak*) gora egiteko arriskua dakar. Kontsumitzaileak trantsizio ekologikorako ahalduntzeari buruzko Zuzentarauak (2024an onartu denak) eta ingurumen-alegazio esplizituei buruzko zuzentarau-proposamenak marketinaren esparruko ingurumen-komunikaziorako esparrua ezartzen dute. Enpresek hirugarrenek egiaztatze moduko eta ebidentzia zientifikoan oinarritutako alegazioak egin beharko dituzte.

---

---

## 6 Karbonoaren prezioa ekonomia jasangarri baterako trantsiziorako arriskutzat hartzea

Mugako doikuntza-mekanismoaren (CBAM) erregelamendua 2024an hasi da aplikatzen, eta arauak eraginpean hartutako sektoreen lehiakortasuna babesten lagunduko du. Horretarako, ingurumen-murrizketa gutxiago dituzten herrialdeetako enpresek zuten abantaila desagerraraziko da. Hala ere, horrek badu bigarren ondorio bat. Izan ere, 2026. urtetik aurrera, CBAMen irismenaren barruan ondasunak ekoizten dituzten Europar Batasuneko instalazioetarako Emisio Eskubideen Merkataritza Araubidearen (EU ETS) esparruan emandako doako esleipenak murriztu egingo dira pixkanaka. Eraginpean hartutako salgaiak bitarteko produktuak direnez gero (zementua, burdina, altzairua, aluminioa, ongarriak, elektrizitatea eta hidrogenoa), ondorio hori balio-kate osora zabal daiteke. Hori da enpresek kudeatu beharreko arrisku nagusietako bat.

---

## 7 Teknologia erabilgarri onenen prozesua eta energia-kontsumo eta kontsumo material handiko sektoreen berrikuntza bizkortzea

Industria Emisioei buruzko 2024/1785 Zuzentarau berriaren bidez, teknika erabilgarri onenei buruzko dokumentu sektorialak lantzeko prozesua bizkortu nahi da. Dokumentu horiek energian eta materialetan intentsiboak diren euskal 250 instalazio baino gehiagoren ingurumen-baimen integralen inguruko mugak gogortuko dituzte. Zuzentaraan hainbat jarduera berri txertatzeaz gain, zuzentarauak deskarbonizaziorako berrikuntza, ekonomia zirkularra eta zero kutsadura bultzatzen ditu, eta, horretarako, zenbait teknologia bultzatzen ditu eta 2030erako Eraldaketa Plan bat eskatzen du. Plan horretan, ekonomia zirkularra eta klimatikoki neutroa lortzen laguntzeko 2030-2050 aldian instalazioa nola eraldatuko den azalduko da.

---

## 8 Ekonomia zirkularra oinarritzko lehengaien hornidura seguru eta jasangarrirako

2024. urtean, 2024/1252 (EB) Erregelamendua onartu da, oinarritzko 34 lehengairen hornidura seguru eta jasangarria bermatzeko. Erregulazioak energia-trantsiziorako ezinbestekoak diren lehengai estrategikoak zehazten ditu, eta, berrikuntza gisa, aluminioa, kobrea eta iman iraunkorrak hartzen ditu kontuan. Lehengaien kudeaketa arriskua ebaluatzeko eta kudeatzeko prozesuetan txertatu behar dute euskal enpresek, eta I+G+Baren aldeko apustua egin behar dute lehengai kritiko horiekiko mendekotasuna murrizteko. Era berean, lehengai horiek erauzi, ordeztu, prozesatu eta birziklatzeko proiektuak estrategikotzat jotzea ahalbidetzen du erregelamendua, baimenak lortzeko eta finantzaketa eskuratzeko baldintza hobek izan ditzaten.

---

---

## **9** Ekoizlearen erantzukizun zabalduaren hedapena eta bigarren mailako lehengaien erabilpena bultzatzea

Ekoizlearen erantzukizun zabaldua lehen aplikatzen ez zen sektoreetara hedatu da arauz, hala nola ehungintza-sektorerara, eta irismena zabaldu da beste sektore batzuetan, hala nola aparatu elektriko eta elektronikoen edo industria-ontzien sektoreetan. Horrez gain, automobilgintzaren sektorerako erregelamendu berri bat garatzen ari da. Erregelamendu horrek, sektorean bigarren mailako lehengaiak erabiltzea proposatzeaz gain, birziklatze-errendimenduen kalkulua zehaztuko du eta berrerabilera eta birmanufaktura bultzatuko ditu.

---

## **10** Finantza jasangarrietarako Europako taxonomia, irismenaren zabalkuntza eta 4 helburu berri

Taxonomiari buruzko araudia eguneratu egin da, eta sektore berriak hartu dira kontuan, klima-aldaketaren inguruko helburuei begira. Haien artean, Euskadin lehentasunezkoak diren sektoreak daude, hala nola automobilgintzako eta mugikortasuneko osagaien fabrikazioari, trenbide-material gurpildunen osagaien fabrikazioari edo aireontzien fabrikazioari lotutako sektoreak. Era berean, taxonomia 4 ingurumen-helburu berriekin zabaldu da: baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen kudeaketa jasangarria, ekonomia zirkular baterako trantsizioa, kutsaduraren prebentzioa eta kontrola, eta biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta berreskuratzea.

